



Informazio Publikoaren Sarbidetako Euskal Batzordearen jarduera 2024 ekitaldian

2016ko irailaren 16an, irailaren 13ko 128/2016 Dekretua argitaratu zen, **Informazio Publikoaren Sarbidetako Euskal Batzordea sortzekoa**. Dekretu horren helburu bakarra da herritarrek informazio publikoa eskuratzearen arloan jarduera-eremuko EAEko administrazio publikoek ukatzeko emandako berriazko nahiz ustezko ebazpen ororen aurka aukeran eta administrazioarekiko auzien jurisdikziora jo aurretik aurkezten diren erreklamazioei erantzutea.

Herri Administrazio eta Justiziako sailburuaren 2016ko urriaren 6ko Aginduaren bidez eratu zen Batzordea, eta hainbat kargu-uzte eta izendapen egin ziren, berak eskatuta edo agintaldia amaitzeagatik, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren edota Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernuko Sailburuaren aginduen bidez (2017ko azaroaren 15eko, 2021eko uztailaren 7ko, 2023ko martxoaren 8ko, 2024ko urriaren 18ko eta 2025eko otsailaren 6ko Aginduak).

2021eko ekitaldian, aldaketa bat gertatu zen Lehendakaritzan; izan ere, Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren egitura organikoari buruzko Dekretuak Gobernu Irekiaren Zuzendaritzari esleitu zion Batzorde horren presidentetza, ordura arte Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritzan baitzegoen. 2024. urtean, eta XIII. legegintzaldian egindako aldaketekin, eta Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urriaren 29ko 317/2024 Dekretutik aurrera, 12.2 artikuluan honako hau adierazten da: «*Gobernu Irekiaren eta Gobernu Onaren zuzendaria izango da organo horren presidentea*». Presidentea apirilaren 20ko 129/2021 Dekretuaren bidez izendatu zen, eta 2021eko maiatzaren 24ko bilkuran sartu zen Batzordean. Nahiz eta izendapen berria izan duen titular den zuzendaritzan izena aldatu delako, ez da pertsona aldatu 2024an.

Erreklamazioak, erreklamatuak entitate motaren eta 2016-2024 aldirian emandako ebazpen motaren arabera.

2024ko ekitaldian 158 erreklamazio jaso dira, eta guztiak ebatzi dira txosten hau aurkeztean. Ez dira sartu 2024ko ekitaldian ebatzitako 2023ko erreklamazioen datuak. Hurrengo taulan, artatutako erreklamazioen bilakaera jasotzen da, 2016tik 2018ra izandako hazkunde islatzen duena, 2019ko ekitaldian beherakada txiki batekin. 2020tik 2022ra, berriz ere gora egin zuen jasotako erreklamazioen kopuruak, eta 2023an apur bat behera egin zuen.



Aldiz, 2024an erreklamazioen gorakada handia izan zen, eta Batzorde hau sortu zenetik izapidetutako espedienteen urteko gehieneko kopurua jaso zen.

URTEA	ERREKLAMAZIOEN EBAZPENAK	UDALEK INFORMAZIO- ESKAERARI EMANDAKO EZEZKOAREN AURKAKOAK	FORU-ALDUNDIEK INFORMAZIO- ESKAERARI EMANDAKO EZEZKOAREN AURKAKOAK	EAE-KO SEKTORE PUBLIKOAREN EZEZKOAREN AURKAKOAK	BESTE ERAKUNDE BATZUEN EZEZKOAREN AURKAKOAK
2016	Baietsiak	1			
	Ezetsiak				
	Ez onartuak				
	Atzera egiteak				
	Artxibatuak				
	Deribatuak			1	
Guztira	2	1	1	0	0
2017	Baietsiak	13	1	7	
	Ezetsiak				1
	Ez onartuak	3		3	
	Atzera egiteak	1		2	
	Artxibatuak	1		1	
	Deribatuak				
Guztira	33	18	1	13	1
2018	Baietsiak	54		7	5
	Ezetsiak	5		3	
	Ez onartuak	9		4	
	Atzera egiteak	12		1	
	Artxibatuak				
	Deribatuak				
Guztira	100	80	0	15	5
2019	Baietsiak	41		6	
	Ezetsiak	5		4	
	Ez onartuak	11	3	4	
	Atzera egiteak	8			
	Artxibatuak	1		1	
	Deribatuak				
Guztira	84	66	3	15	0
2020	Baietsiak	29		29	
	Ezetsiak	1		15	
	Ez onartuak	6	4	11	
	Atzera egiteak	3			
	Artxibatuak	2			
	Deribatuak			2	

Guztira	102	41	6	55	0
2021	Baietsiak	52		29	
	Ezetsiak	15		10	
	Ez onartuak	9	1	4	
	Atzera egiteak	4		3	
	Artxibatuak				
	Deribatuak			1	1
Guztira	129	80	2	46	1
2022	Baietsiak	24		64	
	Ezetsiak	6		18	
	Ez onartuak	8	5	18	1
	Atzera egiteak			2	
	Artxibatuak	2		5	
	Deribatuak				
Guztira	153	40	5	107	1
2023	Baietsiak	33		43	
	Ezetsiak	1		8	
	Ez onartuak	30	1	12	1
	Atzera egiteak	1			
	Artxibatuak	1		1	
	Deribatuak				
Guztira	132	66	1	64	1
2024	Baietsiak	71		26	
	Ezetsiak	7		8	
	Ez onartuak	20	4	12	
	Atzera egiteak	9			
	Artxibatuak				
	Deribatuak				
Guztira	158	107	4	46	1
GUZTIRA 2016-2024	2021era arte	63.5%	3%	32%	1.5%
	2022ra arte	54.06%	2.99%	41.63%	1.33%
	2023ra arte	53.33%	2.59%	42.86%	1.22%
	2024ra arte	55.88%	2.57%	40.43%	1.12%

Ikus daitekeenez, 2016tik 2024ra bitarteko aldi osoan, erreklamazioen % **55,88 informazio publikoa eskuratzeko ukoen edo EAEko udalek emandako informazioarekiko desadostasunen ondorio izan dira, % 40,43 EAEko sektore publikoarenak, eta % 3,69**

beste erakunde mota batzuenak, hala nola elkargo profesionalenak edo Euskal Batzordera jotzen duten beste erakunde batzuenak, baina formalki foru-aldundietako edo estatuko gardentasuna bermatzeko organoen aurrean egin behar dute.

2020an, joera-aldaketa bat gertatu zen; izan ere, EAEko sektore publikoak emandako informazioa ukatzearen edo harekiko desadostasunaren ondoriozko erreklamazioek (55) gaintitu egin zituzten udalek jasotakoak (41). 2021ean, ordea, aurreko joera errepikatzen da, eta, beraz, erreklamazio gehienak udalek emandako informazioa eskuratzeari uko egiteari edo horrekin ados ez egoteari dagozkie, 80 eta 46, hurrenez hurren. 2022ko ekitaldian, joera-aldaketa handia gertatu zen: EAEko sektore publikoak emandako informazioa ukatzearen edo harekiko desadostasunaren ondoriozko erreklamazioak (107) ia hirukoiztu egin ziren udalek jasotakoan aldean (40). Hori hainbat kausaren ondorio izan liteke, hala nola gobernu autonomikoak eskubide hori gehiago hedatzea. Hala ere, egiaztatu behar da bi sindikatuk eta enplegatu publikoren batek erreklamazio gehiago egin dituztela Eusko Jaurlaritzan, negoziazio kolektiboarekin eta plantillak egonkortzeko prozesuarekin (51 erreklamazio) lotutako informazio-eskaerekin lotuta, eta hori ez da gertatu udalen kasuan. 2023an, ordea, berdindu egin dira EAEko sektore publikoari dagozkion erreklamazioak (64) eta udalei dagozkienak (66).

2024an, hasierako joerara itzuli zen, informazio publikoa eskuratzeko ukoei edo udalek emandako informazioarekin bat ez etortzei buruzko erreklamazioen % 67,72rekin (107) eta EAEko sektore publikoaren % 29,11rekin (46).

Udalei dagozkien erreklamazioen kasuan, gehienak toki-administrazioaren administrazio-isiltasunaren aurrean gertatzen direla ikus daiteke, eta aurrerago aztertuko dugu hori.

Foru-aldundietako gardentasuna bermatzeko organoen erreklamazioak.

Foru Aldundiak gardentasuna kontrolatzeko organo espezifikoa dute (Arabako Foru Aldundiarena 2017an sortu zen, Bizkaikoa 2016an eta Gipuzkoakoa 2019an), baina orain arte Informazio Publikoaren Sarbidetako Euskal Batzordeak baino jarduera txikiagoa izan du, webgunean argitaratuta dituzten ebazpenak ikusita. Taula honetan ageri da.

URTEA	ARABAKo Foru Aldundia Gardentasunaren Foru Kontseilua	BIZKAIAko Foru Aldundia Erreklamazioen Batzordea	GIPUZKOAko Foru Aldundia Gardentasunaren arloko Erreklamazioen Batzordea
2016			
2017			
2018	1	3	
2019	1	8	2
2020	4	7	3
2021	6	7	3
2022	6	13	1
2023	1	6	2
2024		4	
GUZTIRA	19	48	11

Informazio Publikoaren Sarbiderako Euskal Batzordean jasotako erreklamazioen arrazoiak: administrazio-isiltasuna.

Nabarmentzekoa da 2016-2024 aldi osoan **erreklamazio gehienen arrazoia erantzunik jaso ez izana, izan dela hau da, administrazio-isiltasuna**; izan ere, 20.4 artikulua aplikatuz, erantzuteko gehieneko epea igaro eta ebazpen espresurik eman eta jakinarazi ez bada, eskaera ezetsi egin dela ulertu behar da.

Erreklamazioen % 64 EAeko administrazioen erantzunik ezaren ondorio dira, hau da, % 79 toki-erakundeen kasuan eta % 51 EAeko sektore publikoaren kasuan. Azpimarratu behar da, oro har, soilik erreklamazioen % 36ren arrazoia dela jasotako informazioarekin ados ez egotea edo sarbidea berariaz ukatzea.

Egia da kasu askotan erakundeak eskatutako informazio guztiarekin edo zati batekin ematen duela erantzuna, Batzorde honek erreklamazio-espedientearen instrukzioan emandako entzunaldi-epean, eta, beraz, erreklamazioa baietsi egiten da, arrazoi formalengatik soilik bada ere, baina horrek kaltea eragiten dio interesdunari, informazioa lortzeko orduan atzerapena eragiten duelako eta eskaeraren izapidetze bikoitza egiten zaiolako (eskaera eta erreklamazioa).

URTEA	ADMINISTRAZIO-ISILTASUNA, UDALEK	ADMINISTRAZIO-ISILTASUNA, FORU ALDUNDIEK	ADMINISTRAZIO-ISILTASUNA, ESTATUKO ADMINISTRAZIOAK / BESTE BATZUEK	ADMINISTRAZIO-ISILTASUNA, EAE-KO SEKTORE PUBLIKOAK	ERREKLAMAZIO KOPURUA, ADMINISTRAZIO-ISILTASUNAGATIK	GUZTIRA JASOTAKO ERREKLAMAZIOEN KOPURUA	ADMINISTRAZIO-ISILTASUNAREN %
2016	1	1			2	2	100%
2017	14	1		11	26	33	79%

2018	74			12	86	100	86%
2019	53	1		3	57	84	68%
2020	36	4		30	70	102	69%
2021	66		1	27	94	129	73%
2022	32	3	1	28	64	153	42%
2023	45	1	1	32	79	132	60%
2024	74	1		18	93	158	59%
Guztira	395	12	3	161	571	893	64%
Erreklamazioak, guztira	499	23	9	315		893	
Guztira, isiltasunaren %	79.16%	53.17%	33%	51.11%	Isiltasunaren ehunekoa erakunde-motaren arabera, jasotako erreklamazioei dagokienez		

Euskal sektore publikoko erakundeen erantzun-maila (% 49) toki-erakundeena baino nabarmen handiagoa bada ere (% 21), ezinbestekoa da informazio publikoa eskuratzeko eskaera guztiei erantzun nahi izatea, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 20. artikulua aplikatuz, 9 urte igaro baitira araua indarrean jarri zenetik, eta antolaketa-eredua eta prozedura elektronikoa erabat ezarrita baitaude 2015eko urtarrilaren 13ko Gobernu Kontseiluan onartu zenetik. Joera urtez urte hobetzen ari bazen ere, 2023an eta 2024an administrazio-isiltasuna handitu egin da eta % 60 inguruan mantendu da.

Informazio Publikoaren Sarbidetako Euskal Batzordean aurkeztutako erreklamazioen ebazpen-motak.

Informazio Publikoaren Sarbidetako Euskal Batzordeak emandako ebazpenen tipologiari dagokionez, nabarmentzekoa da joera mantentzen dela; izan ere, **2016-2024 aldi osoan, ebazpenen % 60,02 baietsiak izan ziren, % 20,60 ez onartuak eta % 11,98 soilik ezetsiak.** 2024an, baietsitako erreklamazioak % 62,03 izan ziren.

Ezespenak gertatzen dira kasu askotan informazioa ez dagoelako, haien eskumenekoa ez delako edo dagoena eman delako, baita informazioa eskuratzeko eskubidearen prozedura bat ez delako edo baldintza formalak betetzen ez dituelako ere. Ezespena oso txikia da, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legeak 14. artikuluan ezartzen dituen **sarbide-eskubidearen mugak aplikatzeagatik edo 15. artikuluan araututako **datu pertsonalen babesagatik**. 2024an, jarritako erreklamazioen % 9,49 baino ez dira ezetsi.**

Ez onartzeko arrazoi nagusia da irekita dauden prozeduretan interesa duten pertsonak direla, eta araudi espezifikoaren bidez eskuratu behar dela informazioa, eta, kasu batzuetan, epez kanpo jarritako erreklamazioak, edo errepikakorrak, edo erreklamazioa

jartzea ezinezkoa denean. Eskaera abusuzkoak direlako edo legearen gardentasunaren helburuarekin justifikatzen ez direlako sortzen diren kausak txikiagoak dira. 2024an, onartu ez diren erreklamazioak kasuen % 22,78 izan dira, hau da, 36.

ERREKLAMAZIO-EBAZPENAK	UDALEN EZEZKOAREN AURKAKOAK	FORU-ALDUNDIEN EZEZKOAREN AURKAKOAK	EAE-KO SEKTORE PUBLIKOAREN EZEZKOAREN AURKAKOAK	BESTE ERAKUNDE BATZUEN EZEZKOAREN AURKAKOAK	2016-2024 GUZTIRA	%	2024	%
Baietsiak	318	1	211	6	536	60.02%	98	62.03%
Ezetsiak	40		66	1	107	11.98%	15	9.49%
Ez onartuak	96	18	68	2	184	20.60%	36	22.78%
Atzera egiteak	38		8		46	5.15%	9	5.70%
Artxibatuak	7		8		15	1.68%		
Deribatuak		4		1	5	0.56%		
	499	23	361	10	893	100%	158	100%

Erreklamatzailen tipología eta erabilitako interakzio-kanala.

2016-2024 aldian, erreklamatzailen % 59,13 gizonak izan dira: % 15,45 emakumeak, eta % 25,42 pertsona juridikoak.

Bestalde, interakziorako gehien erabiltzen den kanala elektronikoa da oraindik ere, eta hazten jarraitzen du: 2024an interakzioen % 99 izan dira, eta 2016-2024 aldi osoan interakzioen % 89,25; posta bidezkoa, berriz, % 9,07 izan da, eta aurrez aurrekoa, % 1,68.

URTEA	Generoa			Interakzio-kanala		
	Gizonezkoa	Emakumezkoa	Pertsona juridikoa	Posta	Aurrez-aurrekoa	Elektronikoa
2016		1	1	1		1
2017	26	7		21		12
2018	82	16	2	23		77
2019	75	7	2	5	1	78
2020	57	16	29	8	14	80
2021	64	12	53	10		119
2022	74	24	55	8		145
2023	76	28	28	4		128
2024	74	27	57	1		157
Guztira	528	138	227	81	15	797
%	59.13	15.45	25.42	9.07	1.68	89.25

**Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren aurrean errekurtsua jarritako Batzordearen ebazpenak.**

2016-2024 aldian, **Informazio Publikoaren Sarbiderako Euskal Batzordearen 10 ebazpen errekurritu dira Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusian**: 5 ebazpen 2018ko espedientei buruzkoak, 1 2019ko espedientei buruzkoak, 1 2021eko espedientei buruzkoa, 1 2022ko espedientei buruzkoa eta 2 2024ko espedientei buruzkoa. 7 espedientetan epaia eman da, eta **kasu guztietan ezetsi egin da Informazio Publikoaren Sarbiderako Euskal Batzordearen ebazpenaren aurka jarritako errekurtsua. Horrela, berretsi egin da errekurritutako ebazpena, eta ezetsi egin dira demandatzailearen uziak. Horrek berresten du nola finkatzen ari den gardentasuna bermatzeko organoetan aplikatzen den jurisprudentzia-irizpidea.**

Administrazioarekiko auzierrekurtsu		Erreklamazioaren espediente zk.	IPren Sarbiderako Euskal Batzordearen Ebazpen zk.	Epaia		
Prozedura arruntaren zk.	Demandatzailea			Epai-zk.	Epaitzaren data	Epaitza
667/2018	Bizkaiko Erizainen Elkargo Ofiziala	2018/000061	19/2018	62/2021	2021/02/17	Errekurtsua ezestea
70/2019	Oñatiko Udala	2018/000136	69/2018	379/2021	2021/10/19	Errekurtsua ezestea
75/2019	UPV/EHU	2018/000098	34/2018	369/2021	2021/10/05	Errekurtsua ezestea
134/2019	Euskal TrenBide Sarea ETS	2018/000123	57/2018	445/2021	2021/11/12	Errekurtsua ezestea
260/2019	Arrasateko Udala	2018/000176	3/2019	5/2022	2022/01/11	Errekurtsua ezestea
469/2020	FJAD	2019/000276	98/2019	505/2022	2022/10/22	Errekurtsua ezestea
874/2021	GGs	2021/000338	110/2021	515/2023	2023/11/09	Errekurtsua ezestea
651/2022	MLP	2022/000171	51/2022			
311/2024	JSR	2024/000077	48/2024			
423/2024	INFORMA D&B SAU	2024/000175	119/2024			

Aurreko txostenetan adierazi dugun bezala, nabarmendu behar da kontrol-organo hori, **Informazio Publikoaren Sarbiderako Euskal Batzordea, funtzio oso mugatuarekin sortu zela, behin-behinekotasuna aurreikusten zuelako**, hau da, EAEko administrazio publikoek beren jarduketa-eremuan informazio publikoa eskuratzearen arloan emandako ezezko ebazpen ororen aurka, berariazkoa zein ustezkoa, aukeran eta administrazioarekiko auzien jurisdikziora jo aurretik jartzen diren erreklamazioei erantzuteko soilik.

Gabezia horiek arindu edo konpondu egin beharko lirateke, **Gardentasunari buruzko EAeko Lege bat promulgatuta. Lege horrek berme-organo bat sortuko luke, nortasun juridiko propioa eta jarduteko gaitasun osoa izango lituzkeena**, bere eginkizunak betetzen dituen ala ez alde batera utzita, eta publizitate aktiboko betebeharren eremuan jarduteko ahalmena izango luke, eta betebeharraren gainean ebazpenak eman ahal izango lituzke, ez-betetzea bertan behera uzteko eta dagozkion diziplina-jarduketak hasteko hartu behar diren neurriak ezartzeko, bai eta informazio publikoa eskuratzeko eskubidea baliatzeari dagokionez ere, informazio publikoa eskuratzeko aukerako erreklamazioen instrukzioari dagokionez, edo, hala badagokio, erreklamazio horietan bitartekaritza-prozedurak kudeatzeari dagokionez, eta erakundearteko kontsulta-organo bat izango lukeen eta legedi horretan ezarritako kontrolaren mende egon daitekeela eta horrek, zalantzarik gabe, haren eraginkortasuna eta EAeko administrazio publikoetan gardentasunaren kultura bat ezartzeko inpaktua areagotuko luke.

Gardentasun ataria.

Batzordeak gardentasun-atari bat du (<https://www.gardena.euskadi.eus/iristeko-eskubidea/>) eta aldizka argitaratzen eta eguneratzen du jarduketa publikoaren funtzionamenduari eta kontrolarekin lotutako jardueraren gardentasuna bermatzeko garrantzitsua den informazioa. Informazio horri 19/2013 Legearen 15. artikuluan jasotako mugak eta datu pertsonalen babesetik eratorritakoak aplikatzen zaizkio. Haren antolamenduari eta funtzionamenduari buruzko informazioa argitaratzen du, bai eta garrantzi juridikoko informazioa eta ekonomiari, aurrekontuari eta estatistikari buruzkoa ere.

Bere jarduerarekin lotuta, bere ebazpen eta akta guztiak argitaratzen ditu, honako hauei buruzko informazio osoarekin: erreklamatzaileraren ezaugarriak, sexua, erabilitako sarbide-kanala; erreklamatuaren administrazioa; emandako, ukatutako edo onartu gabeko informazioa; ebazpenaren zentzua eta haren edukia – erreklamatzaileraren identifikazioa babestuz –, eta erreklamazioaren eta ebazpenaren sarrera-data. Informazioa aurreko aldagaietako edozeinen bidez iragaz daiteke, eta, beraz, eskuragarri dago, eta formatu irekietan ere badago, Open Data Euskadin, berrerabiltzeko. Informazio Publikoaren Sarbidetako Euskal Batzordearen ebazpenei jarritako administrazioarekiko auzi-errekurtsoen aurka Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiak emandako epaiak ere argitaratzen dira.

Legeak 3 hilabeteko epea ezartzen du erreklamazioak ebazteko, eta epe hori igarotakoan ezetsizat joko da. Hala ere, eta Batzordeak espedienteak izapidetzeko bi kide baino ez baditu ere (arduraldi eskusiborik gabeko funtzionarioak dira, eta eginkizun horiek lanpostuaren berezko zereginak betetzearekin txandakatzen dira), **erreklamazioak ebazteko batez besteko denbora muga horren oso azpitik dago**, hurrengo taulan egiazta daitekeen bezala, eta 2024an da Batzorde hau sortu zenetik batez besteko denbora laburrena izan den urtea, hau da, 28,5 egun.



URTEA	ERREKLAMAZIOAK EBAZTEKO BATAZBESTEKO EPEA
2016	48 egun
2017	54 egun
2018	54 egun
2019	49 egun
2020	56 egun
2021	44 egun
2022	38 egun
2023	49,9 egun
2024	28,5 egun

Vitoria-Gasteizen, 2025eko martxo.